

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

2501/2021 Ebazpena, ekainaren 8koa, zeinaren bidez onesten baitira salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzera zuzenduriko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko 2021eko maiatzaren 28an Arabako Lurralde Historikoan egindako probaren behin betiko emaitzak

Azaroaren 24ko 3263/2020 Ebazpenaren bidez, deialdia egin zen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA), salgaiak eta bidaiariak errepidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duena, eskuratzeko xedez Arabako Lurralde Historikoan 2021ean egitea aurreikusitako probetarako.

Aipatutako ebazpenaren I. eranskinaren lehen oinarriak xedatzen du 2021an sei deialdi egingo direla, eta hirugarren deialdiko proba 2021eko maiatzaren 28an, ostiralarekin, egingo zela. Proba hori aurreikusita zegoen bezala egin zen.

Zortzigarren oinarriaren arabera, ariketak kalifikatu ondoren, epaimahaiak www.araba.eus web orrian argitaratu behar ditu behin-behineko emaitzak, eta bost egun balioduneko epea hasiko da, interesdunek alegazioak egin ditzaten. Behin ebatzi ondoren, behin betiko emaitzak onetsi behar ditu Mugikortasun eta Garraio zuzendariak, ALHAOn argitaratuko den ebazpenaren bidez.

Behin-behineko emaitzak 2021eko maiatzaren 31n argitaratu ziren web orrian, eta haien aurka ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu. Beraz, behin betikotzat jo behar dira.

Diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuarekin, diputatu nagusiaren uztailaren 19ko 345/2019 Foru Dekretuarekin eta azaroaren 22ko 2239/2019 Ebazpenarekin bat etorritik, eta dagozkidan eskumenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea salgaiak eta bidaiariak errepide bidez garraiatzeko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen Gidarien Gaitasun Agiria (GGA) eskuratzeko probaren behin betiko emaitzak, zeinak eranskinean jaso baitira. Azterketa hori 2021eko maiatzaren 28an egin zen, Arabako Lurralde Historikoan.

Bigarrena. Agintzea ebazpen hau ALHAOn argitara dadila, eta behin betiko emaitzen zerranda www.araba.eus web orrian.

Ebazpen honek ez du agortzen administrazio bidea eta, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 112.1 eta 121. artikuluetan ezarritakoaren arabera, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuari hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 8a

Mugikortasun eta Garraio zuzendaria
PATRICIA PÉREZ AGUIRRE

GGA LORTZEKO EMAITZEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA - SALGAIK

NAN	EMAITZA
44674612X	Gai
44685111K	Ez gai
44690417Z	Gai
53982373Q	Gai
53983912Z	Ez gai
58031195X	Ez gai
58033625W	Gai
58047958Y	Ez gai
72400555M	Gai
72737263Q	Ez aurkeztua
72746407Y	Ez gai
72753908D	Gai
72756020M	Gai
72830184V	Gai
X3102077K	Ez aurkeztua
X3273335K	Ez gai
X3515567V	Ez gai
X4012439C	Ez gai
X4588032S	Ez gai
X6362842F	Ez gai
X7429408V	Ez gai
X7843136K	Ez gai
X9693535R	Gai
Y0267969X	Ez gai
Y1026146S	Ez aurkeztua
Y2091831H	Ez gai
Y3434140R	Gai
Y3746129H	Ez gai
Y6981202A	Ez gai

GGA LORTZEKO EMAITZEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA - BIDAIARIK

NAN	EMAITZA
16267621C	Gai
16274119D	Ez aurkeztua
18591662A	Gai
18592439K	Ez gai
18601981H	Gai
18602210V	Gai
44674791M	Gai
45663466W	Gai
58495351A	Gai
72735304N	Gai
72745703S	Gai
72750655E	Gai
X2734825X	Gai
Y1192980F	Ez gai